



alcatel 1

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com) webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa. Gainera, webgunean, ohiko galderen erantzunak, softwarearen eguneraketak (Mobile Upgrade-ekin erabiltzeko) eta beste gauza asko dituzu.

## Oharra:

Alcatel 1 5033X/5033D/5033Y modeloei dagokie erabiltzailearen eskuliburu hau.

## Laguntza

Ikus baliabide hauek, ohiko galderei, softwareari eta zerbitzuei buruzko informazio gehiago izateko.

### Ohiko galderak kontsultatzea

Zoaz hona: <http://www.alcatelmobile.com/global-en/support/topFaq.json>

### Telefonoaren softwarea eguneratzea

Softwarea eguneratu dezakezu gailua eguneratzeko aplikazioaren bidez. Zure PCTik softwarea eguneratzeko tresna deskargatzeko, zoaz hona: <http://www.alcatelmobile.com/global-en/support/softwareUpgrade/list>

### Serie-zenbakia edo IMEIa bilatzea

Serie-zenbakia edo IMEIa (International Mobile Equipment Identity) gailuaren kaxan dago. Edo, telefonoan, hautatu **Ezarpenak > Telefonoari buruz > Egoera**.

### Bermearen zerbitzua edukitzea

Lehenik eta behin, jarraitu eskuliburu honetako gomendioei. Ondoren, galdetu bezeroarentzako arreta-zerbitzuari, eta ikusi konponketa-zerbitzuei buruzko informazioa, hemen: <http://www.alcatelmobile.com/global-en/support/repairResult>.

### Lege-informazioa ikustea

Telefonoan, zoaz hona: **Ezarpenak > Sistema > Telefonoari buruz > Lege-informazioa**.

### ONETOUCH Cloud erabiltzea

Ireki erabiltzailearen zentroa eta, ondoren, ukitu **Informazio gehiago**. Erabiltzailearen zentroari buruzko tutoriala online ikusteko (baliteke eremu guztietan ikusgai ez egotea), zoaz hona: <http://my.alcatelonetouch.com/personalcloud/loginPage?reqUrl=/dashboard/index>.

### Alcatelen beste aplikazio batzuk erabiltzea

Zoaz hona: <http://www.alcatelmobile.com/global-en/apps/appsList>

# Aurkibidea

Erabiltzeko oharrak .....	6
Uhin elektromagnetikoak .....	15
Baimenak .....	22
Informazio orokorra .....	24
Informazio orokorra .....	24
<b>1 Zure telefonoa .....</b>	<b>29</b>
1.1 Teklak eta konektoreak .....	29
1.2 Martxan jartzea.....	32
1.3 Pantaila nagusia .....	35
<b>2 Testua idaztea .....</b>	<b>45</b>
2.1 Pantailako teklatuarekin .....	45
2.2 Testua editatzea.....	47
<b>3 Telefono-deiak, erregistroak eta kontaktuak.....</b>	<b>48</b>
3.1 Deia .....	48
3.2 Dei-erregistroa.....	55
3.3 Kontaktuak.....	55
<b>4 Mezuak.....</b>	<b>63</b>
4.1 Mezu berria idaztea .....	63
4.2 Mezuak kudeatzea .....	65

<b>5</b>	<b>Egutegia, erlojua eta kalkulagailua .....</b>	<b>66</b>
5.1	Egutegia.....	66
5.2	Erlojua.....	68
5.3	Kalkulagailua.....	71
<b>6</b>	<b>Konektatzea .....</b>	<b>72</b>
6.1	Internetera konektatzea.....	72
6.2	Bluetooth gailuetara konektatzea.....	75
6.3	Ordenagailu baterako konexioa USB bidez ...	77
6.4	Telefonoko datu mugikorren konexioa partekatzea .....	78
6.5	Sare pribatu birtualetara konektatzea .....	79
<b>7</b>	<b>Multimedia-aplikazioak.....</b>	<b>81</b>
7.1	Kamera.....	81
7.2	Galeria.....	85
<b>8</b>	<b>Bestelakoak.....</b>	<b>89</b>
8.1	Irratia.....	89
8.2	Laguntza-zentroa.....	92
8.3	Beste aplikazio batzuk.....	92
<b>9</b>	<b>Googleren aplikazioak .....</b>	<b>93</b>
9.1	Chrome .....	93
9.2	Gmail .....	94
9.3	Maps Go.....	94
9.4	YouTube .....	94
9.5	Play Store .....	95

9.6	Play Music.....	95
<b>10</b>	<b>Doikuntzak .....</b>	<b>96</b>
10.1	Sareak eta Internet.....	96
10.2	Pantaila .....	98
10.3	Segurtasuna eta kokapena .....	99
10.4	Bateria.....	99
10.5	Smart Manager.....	99
10.6	Funtzio aurreratuak.....	99
10.7	Biltegitratzea .....	99
10.8	Aplikazioak eta jakinarazpenak .....	100
10.9	Soinua .....	100
10.10	Erabiltzaileak eta kontuak.....	100
10.11	Google.....	101
10.12	Irisgarritasuna.....	101
10.13	Sistema .....	101
<b>11</b>	<b>Atera ahalik eta etekin handiena zure telefonoari .....</b>	<b>104</b>
11.1	FOTA eguneratzea.....	104
<b>12</b>	<b>Osagarriak .....</b>	<b>105</b>
<b>13</b>	<b>Telefonoaren bermea .....</b>	<b>106</b>
<b>14</b>	<b>Arazoak eta irtenbideak.....</b>	<b>109</b>
<b>15</b>	<b>Zehaztapenak .....</b>	<b>119</b>



www.sar-tick.com

alcatel

Espainiako estatuan aplikatu beharreko 2,0 W/kg-ko SAR muga betetzen du produktu honek. Gehieneko SAR balio espezifikoak **Uhin elektromagnetikoak** atalean azaltzen dira.

Produktua garraiatzean edo gorputzetik gertu daramazunean, erabili horretarako onartutako osagarri bat (estalki bat) edo gorputzetik 5 mm-ra izan, irrati-maiztasunen esposizioei buruzko eginbeharrak betetzen direla bermatzeko. Kontuan izan produktuak erradiazioa igor dezakeela deitzen ari ez bazara ere.



### BABESTU BELARRIAK

Entzumen-arazorik ez izateko, ez erabili bolumen altua denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago.

## Erabiltzeko oharrak.....

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik gerta litezkeen ondorioen erantzule.

### • IBILGAILUKO SEGURTASUNA:

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, gidatzean telefono mugikorra erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, aurikularrak eta abar) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea aholkatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo entzungailuak musika edo irrati entzuteko. Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek interferentziak sor ditzake ibilgailuko ekipu elektronikoetan; adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar. Beraz, arazorik ez izateko:

- Ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan.

- Galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

### ● ERABILTZEKO KONDIZIOAK:

Telefonoak behar bezala funtziona dezan, noizean behin itzaltzea gomendatzen dizugu.

Itzali telefonoa hegazkinetan.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora. Bereziki deiei erantzutean, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarran, ipini beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa

erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen aplikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi hurrei telefonoa edo telefonoaren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Telefonoa pieza bakarrekoa bada, estalkia eta bateria ezin dira atera. Desmuntatuz gero, baliteke bermea galtzea. Telefonoa desmuntatzen baduzu, bateria hondatu eta erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak aska daitezke.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbi batean.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak -10 °C eta +40 °C bitarteko tenperatura gomendatzen du.

40 °C-tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena ez irakurtzea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu larrialdi-zenbaki batzuetara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende soilik.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Ez dadila telefonoa erori, ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Kristalezko pantaila kaltetuta, pitzatuta edo apurtuta baldin badago, ez erabili telefonoa, minik ez hartzeko.

Ez pintatu telefonoa.

TCL Communication Ltd-ek gomendatzen dituen eta zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak soilik erabili. Hala egiten ez bada, TCL Communication Ltd-k eta haren filialek ez dituzte beren gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan ditzakete edo kordea gal dezakete argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsia-krisirik edo korde galerarik inoiz izan ez dutenei ere gerta dakieke. Krisiren bat jasan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideo-joko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuak dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko arriskua txikitzeko, hartu neurri hauek:

- Ez aktibatu eta ez erabili argi keinukarien funtzioa nekatuta edo logurez bazaude.
- Ordu oro, gutxienez, 15 minutuko atsedena hartu.
- Argiak piztuta dauden lekuetan jokatu.
- Jokoetan ibiltzeko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

- Jokatzeko ari zarela eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatzen bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, gelditu eta hartu atsedena ordu batzuek berriro jokatzeko hasi aurretik
- Jokatzeko ari zarela edo ondorenean eskuetan, eskumuturretan edo besoetan mina izaten jarraitzen baduzu, utzi jokatzeko eta galdetu mediku bati.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko:



### **BABESTU BELARRIAK**

Entzumen-arazorik ez izateko, ez erabili bolumen altua denbora luzez. Kontuz ibili entzungailua erabiltzean gailua belarritik gertu badago.

### **● BIZITZA PRIBATUA ERRESPETATZEA:**

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeko eta soinua grabatzeko buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, baliteke erabat debekaturik egotea beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/edo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela uler bailiteke. Erabiltzailearen ardurua da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

### **● BATERIA:**

Aireportuetako araudiaren arabera, zure bateria ez dago kargatuta. Lehenbizi, kargatu.

### **Pieza bat baino gehiagoko gailuetarako:**

Kontuan izan jarraibide hauek:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik bateriari, ez desmuntatu eta ez eragin zirkuitulaburrik.

- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu indarrean dauden ingurumena babesteko legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCL Communication Ltd-ek eta/edo haren filialek aholkatu gabekorik.

### **Atera ezin den bateria eta pieza bat baino gehiago dituzten gailuetarako:**

Kontuan izan jarraibide hauek:

- Ez saiatu bateria ateratzen, ordezkatzan edota irekitzen.
- Ez egin zulorik bateriari, ez desmuntatu eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez jarri telefonoa sutan, ez eta zaborretan ere; ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Telefonoa eta bateria indarrean dagoen ingurumen-legeria aintzat hartuta bota behar dira.

### **Pieza bakarreko gailuetarako:**

Kontuan izan jarraibide hauek:

- Ez saiatu atzeko estalkia kentzen.
- Ez saiatu bateria ateratzen, ordezkatzan edota irekitzen.
- Ez zulatu telefonoaren atzeko estalkia.
- Ez jarri telefonoa sutan, ez eta zaborretan ere; ez eduki 60 °C-tik gorako tenperaturetan.

Telefonoak eta bateriak pieza bakarra osatzen dute, eta indarrean dagoen ingurumen-legeria aintzat hartuta bota behar dira.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriek ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezuean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta haien osagaiak berrerabili egingo dira.

Europar Batasuneko herrialdeetan:

Doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

Europar Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara. Bilketa-puntuetara eraman behar dira, birziklatzera.



ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

### ● KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute. 0 °C - 40 °C

Informazio-tratamendurako arauak eta bulegoko segurtasunari dagozkionak bete behar ditu telefono mugikorraren kargagailuak. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko Direktiba ere bete behar du. Zehaztapen elektriko ugari aplika daitezkeenez, gerta liteke herrialde bateko kargagailu batek beste herrialde batean ez funtzionatzea. Diseinatu ziren helbururako soilik erabili behar dira.

## Uhin elektromagnetikoak.....

Telefono mugikorraren modelo guztiek nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 2014/53/EU (RED) direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da.

Osasuna eta segurtasun publikoa babestea, batez ere telefono mugikorraren erabiltzaileena, eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

GAILU HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Gailu mugikor hau irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Nazioarteko arauak gomendatutako irrati-uhinekiko (irrati-maiztasuneko eremu elektromagnetikoak) esposizio-mugak ez gainditzeko moduan diseinatu da. Jarraibide horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu, eta pertsona ororen adina eta osasun-egoera gorabehera segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte.

Irrati-uhinekiko esposizioaren arauen neurketa-unitatea absortzio espezifikoko koefizientea edo SAR da. Telefono mugikorretarako, 2 watt/kilogramo SAR muga dago.

SAR kalkulatzeko probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak potentzia-maila ziurtatu handienara transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. ICNIRPren arabera, hauek dira gailu-modelo honetarako SAR balio handienak:

5033X

<b>Modelo honetarako eta erregistratutako kondizioetarako gehienezko SAR balioak.</b>		
<b>SAR buruan</b>	UMTS 900 + WLAN 2.4G	0.77 W/kg
<b>SAR gorputzean</b>	LTE Band 1 + WLAN 2.4G	1.63 W/kg

5033D

<b>Modelo honetarako eta erregistratutako kondizioetarako gehienezko SAR balioak.</b>		
<b>SAR buruan</b>	LTE Band 20 + WLAN 2.4G	0.91 W/kg
<b>SAR gorputzean</b>	LTE Band 1 + WLAN 2.4G	1.63 W/kg

5033Y

<b>Modelo honetarako eta erregistratutako kondizioetarako gehienezko SAR balioak.</b>		
<b>SAR buruan</b>	UMTS 900 + WLAN 2.4G	1.05 W/kg
<b>SAR gorputzean</b>	LTE Band 1 + WLAN 2.4G	1.74 W/kg

Gailua erabiltzean, haren benetako SAR balioak adierazitako balio horiek baino askoz txikiagoak dira. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Gailuaren potentzia-irteera zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa izango da SAR balioa.

Gorputzeko SAR probak egiteko, 5 mm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean.

Zuk erabiltzen duzun osagarria baimendua ez bada, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak, FDAk (US Food and Drug Administration, Elikagaiak eta Sendagaiak Kontrolatzeko Estatu Batuetako Erakundea) eta beste erakunde batzuek jakinarazi dute kezkatuta daudenek eta esposizioa murriztu nahi dutenek esku libreko gailu bat erabil dezaketela telefonoa burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko deietan, edo telefonoan igarotzen duten denbora murriz dezaketela.

Informazio gehiago izateko, ikusi [www.alcatelmobile.com/gunea](http://www.alcatelmobile.com/gunea).

OMEk eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruz duen informazio osagarria Interneteko helbide honetan aurkituko duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du.

Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu, eta ez hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datu-kablearekin erabiltzean, gailuak zehaztutako jarraibideak bete behar ditu. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta jarri telefonoa gorputzetik 5 mm-ra gutxienez.

Kontuan izan gailua erabiltzen dizunean balitekeela zure datu pertsonal batzuk gailu nagusiarekin partekatzea.

Zure ardura da zure datu pertsonalak babestea, eta ez partekatzea baimendurik gabeko gailuekin edo zure gailura konektatutako hirugarrenen gailuekin. Wifia duten produktuen kasuan, konfiantzazko wifi-sareetara bakarrik konektatu Gainera, zure produktua sarbide-puntu gisa erabiltzen duzunean (posible den kasuetan), erabili sareko segurtasuna. Aholku hauek beteta, zure gailura baimendu gabe sartzea saihestuko duzu. Mugikorrek hainbat lekutan gorde dezake informazio pertsonala, adibidez, SIM txartelean, memoria-txartelean eta telefonoaren memorian. Egiaztatu informazio pertsonal guztia ezabatu duzula gailua birziklatu, itzuli edo bota aurretik. Hautatu kontu handiz zure aplikazio eta eguneraketak, eta instalatu konfiantzazko iturrietatik soilik. Zenbait aplikaziok zure telefono mugikorren errendimenduari eragin diezaiokete, eta informazio pribatura sartu, adibidez, kontuko datuetara, deien datuetara, kokapenaren xehetasunetara eta sareko baliabideetara.

Kontuan izan TCL Communication Ltd-rekin partekatutako datu guztiak datuak babesteko legediari jarraituz biltegitzen direla. Hala, TCL Communication Ltd-ek datu pertsonal guztiak babesteko neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak hartzen eta aplikatzen ditu; esate baterako, baimendu gabeko edo legez kanpoko datu-prozesatzearen aurkakoak edo datuok galtzearen edo ustekabeen hondatzearen aurkakoak. Neurri horiek segurtasun-maila egokia emango dute, hauek kontuan hartuz:

- (i) eskura dauden baliabide teknikoak,
- (ii) neurriak inplementatzeak duten kostua,
- (iii) datu pertsonalak prozesatzeak dakartzan arriskuak, eta
- (iv) prozesatutako datuen sentikortasun-maila.

Edozein unetan sar zaitezke zure datu pertsonaletan, eta datuok alda eta edita ditzakezu, zure erabiltzaile-kontuan sartuz, zure erabiltzaile-profila bisitatuz edo zuzenean gurekin harremanetan jarritz. Guk zure datu pertsonalak editatzea edo ezabatzea nahi baduzu, zure notortasuna frogatzeko eskatuko dizugu beharbada, zure eskaria bete aurretik.

## Baimenak.....



MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da. Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta TCL Communication Ltd-k eta haren filialek lizentziarekin erabiltzen dituzte marka horiek. Beste marka eta izen komertzial batzuk beren jabeenak dira. **Alcatel 5033X/5033D/5033Y** Bluetootharen IDa D038401



Wi-Fi logotipoa Wi-Fi Allianceren ziurtatze-marka da.

Ekipo hau Europako herrialde guztietan erabil daiteke.

Gailu hau EBko estatu guztietan erabil daiteke inolako murrizketarik gabe.

Google, Googleren logotipoa, Android, Androiden logotipoa, Google Search™, Google Maps™, Gmail™, YouTube, Google Play Store, Google Latitude™ eta Hangouts™ Google Inc.-ren marka komertzialak dira.

Googlek sortutako edo partekatutako lanetatik erreproduzitzen edo aldatzen da Android gailua, eta Creative Commons 3.0 Attribution lizentzian deskribatzen diren terminoen arabera erabiltzen da (**Ezarpenak** > **Telefonoari buruz** > **Lege-informazioa** aukeran **Google-ren lege-oharrak** sakatuz gero bistaratuko da testua) <sup>(1)</sup>.

Kode irekiko programak (<http://opensource.org/>, mtd, msdosfs, netfilter/iptables eta initrd, objektu-kodean) eta lizentziapean (GNUren eta Apache-ren lizentziapean) eskuratutako kode irekiko beste programa batzuk erabiltzen dituen produktu bat eskuratu duzu.

Eskatutako iturri-kodeen kopia oso bat emango dizugu TCL Communication Ltd-k produktua ematen duenetik hasi eta hiru urteko epean.

Hemen deskargatu ditzakezu jatorrizko kodeak: <http://sourceforge.net/projects/alcatel/files/>. Jatorrizko kodea ematea doakoa da Internetetik eskuratzuz gero.

Honen bidez jakinarazten dugu Europar Batasunean/EEEn/Suitzan bakarrik balio duela jabetza intelektualaren eskubideen urraketen aurkako azken erabiltzailearen bermeak.

<sup>(1)</sup> Baliteke herrialde batzuetan eskuragarri ez egotea.

Azken erabiltzaileak produktua esportatu edo garraiatzen badu, edo Europar Batasunetik/EEEtik/Suitzatik kanpo erabiltzen, produktuarekiko fabrikatzaileak eta haren hornitzaileek dituzten erantzukizun, berme edo kalte-ordain guztiak iraungi egingo dira, barne direla jabetza intelektualaren eskubideen urraketei lotutako kalte-ordainak.

## Informazio orokorra .....

## Informazio orokorra.....

- **Interneteko helbidea:** [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com)
- **Bezeroarentzako arreta:** ikusi telefonoarekin datorren «ZERBITZUAK» liburuxka, edo bisitatu gure webgunea.
- **Fabrikatzailea:** TCL Communication Ltd.
- **Helbidea:** 5/F, Building 22E, 22 Science Park East Avenue, Hong Kong Science Park, Shatin, NT, Hong Kong.
- **Etiketa elektronikoa:** sartu aukera honetan **Ezarpenak** > **Araudiak eta segurtasuna** ukituta, edo sakatu **\*#07#**; etiketatzeari buruzko informazio gehiago aurkituko duzu <sup>(1)</sup>.

<sup>(1)</sup> Herrialdearen arabera.

Gure webgunean, ohiko galderen atala kontsultatu dezakezu (FAQ). Posta elektronikoko bidez ere jar zaitezke gurekin harremanetan, edozein zalantza galdetzeko.

Irrati-ekipo honek irradi-maiztasun eta potentzia maximoekin funtzionatzen du. Hona hemen datuak:

2G 850/900: 33 dBm

2G 1800/1900: 30 dBm

3G B1/2/5/8 (2100/1900/850/900): 24 dBm

4G 1/3/7/8/20 (2100/1800/2600/900/800): 23 dBm

Bluetooth: < 20 dBm

802.11 b/g/n: 2,4 GHz-eko banda < 20 dBm

NFC 13,56 MHz: < 25 dBuA/m 10 m-ra <sup>(1)</sup>.

#### • Araudiari buruzko informazioa

Honen bidez, TCL Communication Ltd-k adierazten du irradi-ekipo honek (**Alcatel 5033X/5033D/5033Y** modeloa) 2014/53/EU Direktiba betetzen duela.

CE adostasun-deklarazioaren testu osoa Interneteko helbide honetan dago: [http://www.alcatelmobile.com/EU\\_doc](http://www.alcatelmobile.com/EU_doc)

<sup>(1)</sup> 5033Y bakarrik.

#### • Informazio osagarria:

Irrati-ekipoak ondo funtzionatzea eragiten duten osagarrien eta osagaien deskribapena, softwarea barne, CE adostasun-deklarazioaren testu osoan irakur daiteke, Interneteko helbide honetan: [http://www.alcatelmobile.com/EU\\_doc](http://www.alcatelmobile.com/EU_doc)

#### Lapurreten aurkako babesa <sup>(1)</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldian zenbakia idatziz jasotzea eta leku seguru batean gordetzea gomendatzen dizugu (\*#06# sakatuta). Gerta liteke poliziak edo zure operadoreak eskatzea telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin, telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

#### Erantzukizunetatik salbuestea

Litekeena da desberdintasunak egotea eskuliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, zure telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.


<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

TCL Communication Ltd-k ez du bere gain hartuko desberdintasun horien (halakorik balego) lege-ardurarik, ez eta haiek izan ditzaketen ondorioenik ere. Erantzukizun hori operadoreak soilik izango du. Hirugarren batzuek gailuan sartzeko bidaltzen dituzten materialak (“Hirugarren batzuen materialak”) izan ditzake entzungailu honek, jatorri-kodeko edo exekutagarriko softwarea eta aplikazioak barne. Telefono honetako hirugarren batzuen material guztiak bere horretan azaltzen dira, inolako bermerik gabe (ez espliziturik ez impliziturik). Eroslea arduratzen da TCL Communication Ltd-k gailu mugikorren eta telefonoen fabrikatzaile gisa dagozkion betebeharrak guztiak bete izanaz, jabetza intelektualeko eskubideen arabera. TCL Communication Ltd-k inola ere ez du bere gain hartuko hirugarren batzuen materialek dituzten funtzionamendu-akatsen edo telefono honekin nahiz beste gailuren batekin batera aritzeko dituzten bestelako akatsen gaineko ardura. Legearen arabera, TCL Communication Ltd-k ez du erantzukizunik erreklamazioetan, demandetan, auzietan edota ekintzetan, eta, zehatzago (baina ez muga horrekin), erantzukizun zibileko ekintzetan, hirugarren batzuen material horien erabileran edo erabiltzeko saiakeran sortzen den edozein ardurari dagokionez. Bestalde, TCL Communication Ltd-k doan eman dituen uneko Hirugarrenen materialek ordaintzeko eguneratzeak eta bertsio berriak izan ditzakete etorkizunean. TCL Communication Ltd-k kostu gehigarriak eta bestelakoei lotutako ardura oro ukatzen du; eroslearena izango da

ardura hori. TCL Communication Ltd ez da erantzule aplikazioen bat ez badago eskuragarri, eroslearen operadorearen eta herrialdearen arabera baita eskuragarritasuna. TCL Communication Ltd-k une oro du eskubidea bere telefonoetan hirugarren batzuen materialak gehitzeko edo kentzeko, aldez aurretik jakinarazi gabe. TCL Communication Ltd-k inola ere ez du izango erantzukizunik material horiek kentzeak izan ditzakeen eraginetan.

# 1 Zure telefonoa.....

## 1.1 Teklak eta konektoreak



### < Atzera botoia

- Ukitu tekla hori aurreko pantailara itzultzeko edo, besteak beste, elkarrizketa-koadro bat, aukera-menua edo jakinarazpen-panela ixteko.

### ○ Hasierako botoia

- Aplikazio edo pantaila batean zaudela, ukitu tekla hau pantaila nagusira itzultzeko.



- Luze sakatu Google Now pizteko. Besteak beste, honetarako da lagungarri aplikazio hori: jatetxeei buruzko informazioa eta haien helbidea emateko, pantailan atzematen duen edukiaren arabera.



## Azkena erabilitako aplikazioen botoia

- Ukitu tekla hau azkena erabilitako aplikazioen irudi-zerrenda bat irekitzeko.



## Pizteko tekla

- Sakatu: Pantaila blokeatzeko edo pizteko.
- Luze sakatu: Menu mugikor bat bistaratuko da, aukera hauekin: **Berrabiarazi/ Itzali/Hegaldi modua**.
- Pantaila-argazki bat egiteko, luze sakatu **pizteko** tekla eta **bolumena jaisteko** tekla.
- Luze sakatu **pizteko** tekla, 10 segundoz baino gehiagoz, berrabiaraztera behartzeko.



## Bolumen-teklak


- Deiak egiteko moduan, deiaren bolumena doitzeko.
- Musika/bideo/streaming-moduetan, multimedia-aplikazioen bolumena doitzeko.

- Modu arruntean zaudela, dei-tonuaren bolumena doitzeko.
- Sarrerako dei baten txirrina isilarazteko.
- Kameraren aurrebistan, sakatu bolumena igotzeko edo **jaisteko** tekla argazki bat egiteko, edo luze sakatu argazki-ateratze jarraitua abiarazteko.


## 1.2 Martxan jartzea

### 1.2.1 Konfigurazioa


- 1 Atzeko tapa jartzea eta kentzea
- 2 MicroSD txartela jartzea eta ateratzea
- 3 SIM txartela jartzea eta ateratzea.



5033X/5033Y





5033D



Telefono hau nanoSIM txartelekin soilik da bateragarria. Ez saiatu bestelako SIM txartelik sartzen (hala nola mini edo nano), telefonoa hondatzeko arriskua baitago.

### Bateria kargatzea



Bateria osorik kargatzea gomendatzen da . Karga-egoeraren ehunekoak pantailan bistaratzen da. Bateria kargatu ahala, ehunekoak jotzen joango da.



Bateria- eta energia-kontsumoa murrizteko, bateria erabat kargatzen denean, deskonektatu kargagailua entxufetik, eta, erabiltzen ari ez zarenean, besteak beste, itzali wifi-aplikazioak, GPSa, bluetootha edota bigarren mailan exekututzen direnak, eta murriztu pantaila piztuta ikusteko tartea.

### 1.2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu **pizteko** tekla, harik eta telefonoa piztu arte; behar izanez gero, desblokeatu telefonoa (irristatu, PINa, pasahitza edo eredu) eta baieztatu. Pantaila nagusia bistaratuko da.

PIN kodea ez badakizu edo ahaztu egin bazaizu, jarri harremanetan sare-operadorearekin. Ondo gorde PIN kodea.

### 1.2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu **pizteko** tekla telefonoaren aukerak agertzen diren arte, eta, ondoren, hautatu **Itzali**.

## 1.3 Pantaila nagusia

Zure elementu gogokoenak edota sarrien erabiltzen dituzunak (aplikazioak, lasterbideak, karpetak eta widgetak) jar ditzakezu pantaila nagusian, azkar iristeko. Sakatu **Hasteko** tekla, pantaila nagusira itzultzeko.



#### 1 Egoera-barra

- Egoera-adierazleak/jakinarazpena
- Ukitu hau eta irristatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko.

#### 4 Googleren bilaketa-barra


- Ukitu 2, testu-bilaketako pantailan sartzeko.
- Ukitu 3, ahots bidezko bilaketa-pantailan sartzeko.

#### 5 Gogoko aplikazioen ontzia

- Aplikaziora sartzeko.
- Luze sakatu, aplikazioak mugitzeko edo ezabatzeko.

## 6 Aplikazioen panelera sartzeko.

### Pantaila alderantzikagarria

Bateragarria da telefonoa alderantzikatze funtzioarekin. Pantaila nagusian, ukitu  aplikazioen panela irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak > Pantaila > Biratu pantaila automatikoki** funtzio hau aktibatzeko.

#### 1.3.1 Ukipen-pantaila erabiltzea

##### Ukitzea

Aplikazio batera sartzeko, ukitu hatzarekin.

##### Luze sakatzea

Elementuetan eskuragarri dauden aukeretan sartzeko, luze sakatu. Adibidez, hautatu kontaktuetako kontaktu bat, luze sakatu, eta aukera-zerrenda bat bistaratuko da pantailan.

##### Arrastatzea

Luze sakatu elementu bat, eta irristatu beste kokaleku batera.

##### Irristatzea

Irristatu pantaila aplikazio, argazki eta webguneetan gora eta behera mugitzeko. Horizontalean ere lerra dezakezu pantaila.

##### Azkar irristatzea

Irristatzearen antzekoa da, baina leunago eta bizkorrago egin behar da.

##### Hatzak elkartzea eta bereiztea

Jar itzazu bi hatz pantailan, eta bereizi edota elkartu pantailako elementu bat hurbiltzeko edo urruntzeko.

Telefono horrek aukera ematen du **kameran** eta **galerialan** ere hatzarekin zooma egiteko. Ukitu bi aldiz pantaila tamaina handitzeko/murrizteko.

##### Biratzea

Aldatu automatikoki pantailaren orientazioa (horizontaletik bertikalera) telefonoa albo batera biratuz, pantailaren ikuspegi hobea izateko

### 1.3.2. Egoera-barra

Egoera-barratik, telefonoaren egoera (eskuinean) eta jakinarazpenen informazioa (ezkerrean) bistaratu ditzakezu.

Irristatu behera egoera-barra, jakinarazpenak ikusteko, eta arrastatu berriro bizkor konfiguratzeko panela irekitzeko.

Ixteko, ukitu eta irristatu gorantz. Jakinarazpenik baldin badago, ukitu egin daitezke, zuzenean irakurtzeko.

#### Jakinarazpen-panela

Jakinarazpenik baduzu, ukitu eta irristatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko eta informazio xehatua irakurtzeko.



Jakinarazpen guztiak ezabatzeko (uneko jakinarazpenak ez dira ezabatuko).

### Konfigurazio azkarreko panela

Ukitu eta irristatu jakinarazpen-panela beherantz, konfigurazio azkarreko panela irekitzeko. Ukitu ikonoak funtzioak aktibatzeko edo desaktibatzeko edo moduak aldatzeko.




Ireki **Ezarpenak**, doikuntza guztien zerrenda ikusteko.

### 1.3.3 Pantaila blokeatzea eta desblokeatzea

Zure telefonoa eta pribatutasuna babesteko, telefonoaren pantaila blokea dezakezu, eredu, PINa, pasahitza, hatz-marka edo beste aukera batzuk erabilia.

#### Pantaila desblokeatzeko eredu bat sortzea

- Pantaila nagusian, ukitu  aplikazio-panela irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak** > **Segurtasuna eta kokapena** > **Pantailaren blokeoa**.

- Marraztu zure eredu pertsonala.


### Telefonoaren pantaila blokeatzeko

Sakatu behin **pizteko** tekla pantaila blokeatzeko.

### Telefonoaren pantaila desblokeatzeko

Sakatu behin **pizteko** tekla, pantaila pizteko; irristatu hatza, pantaila desblokeatzeko sortu duzun eredu egiteko; edo sartu PINa, pasahitza, hatz-marka edo konfigurazioan aukeratu pantaila desblokeatzeko.

Pantaila-blokeo bezala **Irristatu** hautatu baduzu, sakatu **pizteko** tekla pantaila argitzeko, eta, ondoren, irristatu gora pantaila desblokeatzeko.



Ukitu bi aldiz xehetasun-pantailara sartzeko.

Irristatu gorantz pantaila desblokeatzeko.

## 1.3.4 Pantaila nagusia pertsonalizatzea

### Gehitzea

Luze sakatu karpeta bat, aplikazio bat edo widget bat, eta irristatu elementua zuk nahi duzun pantailara.

### Beste toki batean jartzea

Luze sakatu elementu bat, irristatu nahi duzun tokira eta askatu. Pantaila nagusian nahiz gogokoen ontzian mugi ditzakezu elementuak. Luze sakatu pantailaren ezker aldeko edo eskuinaldeko ikonoa, elementua beste pantaila nagusi batera arrastatzeko.

### Ezabatzea

Luze sakatu elementu bat, mugitu **Ezabatu** ikonoaren goiko aldera eta askatu.

### Karpetak sortzea

Pantaila nagusian eta gogokoen ontzian lasterbideak eta aplikazioak hobeto antolatzeko, karpeta batera gehi ditzakezu elementu bat besteren gainean jarrita. Karpeta bati izena aldatzeko, ireki eta ukitu karpetaren izeneko barra, berriro izena idazteko.

## Pantaila-atzealdea pertsonalizatzea

Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, ukitu **HORMA-PAPERAK** pantaila-atzealdea pertsonalizatzeko.

### 1.3.5 Azkena erabilitako widgetak eta aplikazioak


#### Widgetak kontsultatzea

Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat, eta, ondoren, ukitu **WIDGETAK**, widget guztiak ikusteko.


Ukitu hautatutako widgeta eta irristatu, zure gogoko pantailara aldatzeko.

#### Erabilitako azken aplikazioen zerrenda bistartzea

Azkena erabilitako aplikazioak kontsultatzeko, ukitu **azkena erabilitako aplikazioen** tekla. Ukitu leihoko miniatura bat aplikazioa irekitzeko.



Ukitu miniatura bat eta irristatu eskuinerantz edo ezkererantz, edo ukitu **X** aplikazioa ixteko.


Ukitu , pantailaren behealdean, irekita ditzuzun aplikazio guztiak ixteko.

### 1.3.6 Bolumena doitzea

#### Bolumen-tekla erabiltzea

Sakatu **bolumen**-tekla bolumena doitzeko. Bibrazio-modua aktibatuzeko, sakatu **bolumena jaisteko** tekla telefonoak bibratu arte.

#### Doikuntza-menua erabiltzea

Pantaila nagusian, ukitu  aplikazio-panela irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak** > **Soinua** multimedia-fitxategien, tonuen alarmen eta abarren bolumena doitzeko.

## 2 Testua idaztea .....

### 2.1 Pantailako teklata erabilia


#### Pantailako teklatuaren doikuntzak

Sakatu **Ezarpenak > Sistema > Hizkuntzak eta idazketa > Teklatu birtuala**, ukitu konfiguratu nahi duzun teklata, eta aukeran dituzun doikuntzak bistaratuko dira.

#### Pantailako teklatuaren orientazioa doitzea

Biratu telefonoa alborantz edo gorantz, pantailako teklatuaren orientazioa doitzeko. Doitzeko, aldatu doikuntzak (ukitu **Ezarpenak > Pantaila > Biratu pantaila automatikoki**).

### 2.1.1 Gboard



- 1 Testua edo zenbakiak sartzeko balio du.
- 2 Luze sakatu ikurrak hautatzeko.
- 3 Ukitu hau “abc/Abc” moduetan batetik bestera aldatzeko; eta luze sakatu “abc/ABC” modura aldatzeko.
- 4 Ikurren teklatura eta zenbakizko teklatura aldatzeko balio du.
- 5 Luze sakatu hau, testua idazteko moduak bistartzeko.



## 2.2 Testua editatzea

Idatzitako testua editatu egin daiteke.

- Luze sakatu edo sakatu bi aldiz editatu nahi duzun testua.
- Mugitu fitxak hautatutako testua aldatzeko.
- Aukera hauek bistaratuko dira: **EBAKI**, **KOPIATU**, **PARTEKATU** eta **HAUTATU GUZTIAK**.

**Testu berria ere sar dezakezu, nahiago izanez gero.**

- Ukitu idatzi nahi duzun tokia, edo ukitu eta luze sakatu hutsunea; kurtsoreak keinu egingo du eta fitxa bistaratuko da. Irristatu hatza kurtsorea mugitzeko.
- Testuren bat moztu edo kopiatu baduzu, ukitu fitxa, **ITSATSI** bistartzeko eta kopiatutako testua itsasteko.


# 3 Telefono-deiak, erregistroak eta kontaktuak.....

## 3.1 Deia .....



### 3.1.1 Deitzea

Deitzeko, ukitu  gogokoan ontzian.



1 Deien erregistroa

2 Kontaktuak

- 3 Kontaktuaren informazioa ikusteko. Horrez gain, kontaktua editatu, ezabatu edo partekatu egin dezakezu, edo mezua bidali diezaiokezu kontaktuari.
- 4 Teklatua bistaratzeko
- 5 Bistaratutako zenbakira deitzeko.

Luze sakatu ahots-postontzira deitzeko.



Sartu nahi duzun zenbakia teklatuaren bidez eta ukitu deitzeko, edo hautatu **KONTAKTUAK** edo **TELEFONOA** ataletako kontaktu bat, fitxak mugituz edo ukituz; gero, ukitu deitzeko.

Sartu duzun zenbakia **Kontaktuak** atalean gorde daiteke, **Sortu kontaktua** edo **Kontaktua berria** ukituta.

Nahasten bazara eta okerreko zenbakiak ezabatu nahi badituzu, ukitu behar duzu.

Esekitzeko, ukitu .


### Nazioarteko deiak

Nazioarteko deiak egiteko, luze sakatu "+" ikurra idazteko. Ondoren, idatzi herrialdearen nazioarteko aurrezenbakia eta telefono-zenbaki osoa, eta ukitu .

### Larrialdi-deia





Zure telefonoak sare-estaldura baldin badu, markatu larrialdi-zenbakia eta ukitu tekla larrialdi-deia egiteko. SIM txartelik gabe ere funtzionatzen du, baita PIN kodea sartu gabe ere.

### 3.1.2 Deiei erantzutea edo ez onartzea



Dei bat jasotzen baduzu, deiaren leiho bat bistaratuko da pantailaren goiko aldean. Ukitu **BAZTERTU** deia ez hartzeko edo **ERANTZUN** deia erantzuteko. Ukitu deiaren leihoa telefonoan deien pantaila irekitzeko.


Telefono-deien pantailan:

- Ukitu  deia erantzuteko.
- Ukitu  deia ez onartzeko.
- Ukitu  deia ez onartu eta aurrez idatzitako mezu bat bidaltzeko.
- Ukitu , deia erantzuteko gogorarazpen bat ezartzeko.

### 3.1.3 Ahots-postontzira deitzea


Deirik ez galtzeko, sareak ahots-postontziaren zerbitzua du. Zerbitzu horrek erantzungailu gisa funtzionatzen du, eta edozein unetan kontsultatu dezakezu postontzi hori.









Ahots-postontzira sartzeko, sakatu luze  tekla.

Ahots-postontzian mezu bat jasoz gero,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Ireki jakinarazpen-panela, eta ukitu **Ahots mezu berria**.

### 3.1.4 Telefonoz hitz egiten ari zarela

Hitz egiten ari zarela bolumena doitzeko, sakatu **bolumen**-tekla.



-  Ukitu hau uneko deia amaitzeko.
-  Ukitu hau behin, bozgorailu aktibatzeke, dei batean. Ukitu ikono hau berriro, bozgorailua desaktibatzeke.
-  Ukitu hau behin, uneko deia isilarazteke. Ukitu ikono hau berriro soinua ezartzeko.
-  Ukitu hau markatzeko teklatua bistaratzeko.
-  Ukitu hau behin, uneko deia zain uzteko. Ukitu ikono hau deia berreskuratzeke.
-  Ukitu beste dei bat gehitzeko.
-  Ukitu hemen **kontaktuen** aukerak irekitzeko.
-  Dei batean ukipen-pantaila konturatu gabe ez ukitzeko, pantaila automatikoki blokeatuko da telefonoa belarrira gerturatzean, eta desblokeatu handik urruntzean.

### 3.1.5 Zenbait dei kudeatzea





Telefono honekin, zenbait dei kudeatu ditzakezu aldi berean.

### Deiak txandakatzea


Bi dei onartzen badituzu, ukitu kontaktuaren zenbakia edo izena dei batetik bestera aldatzeko. Uneko deia zain utzi eta bestera alda zaitezke.

### Konferentziak <sup>(1)</sup>

Honela ezar dezakezu telefono-konferentzia bat:

- Deitu telefono-konferentziako lehenengo solaskideari.
- Ukitu  beste dei bat gehitzeko.
- Idatzi konferentziara gehitu nahi duzun pertsonaren zenbakia, eta ukitu . **Telefonoa** edo **Kontaktuak** aukeretatik ere gehi ditzakezu parte-hartzaileak.
- Ukitu  talde-dei bat hasteko.
- Ukitu  talde-dei bat amaitzeko eta parte-hartzaile guztiak deskonektatzeko.

### 3.1.6 Deiaren doikuntzak


Ukitu  **deien** pantailan; eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak** telefonoa eta kontaktuak konfiguratzeko.

<sup>(1)</sup> Zure sare-operadorearen arabera.

## 3.2 Dei-erregistroa

**Deien** pantailan ⌚ sakatuta, deien erregistrora sar zaitezke, galdutako, egindako eta jasotako deiak ikusteko.

Ukitu ⓘ informazioa ikusteko eta beste eragiketa batzuk egiteko: dei berri bat egiteko, SMS bat bidaltzeko kontaktuari edo zenbakiari, deiari buruzko informazio xehatua ikusteko, edo deia ezabatzeko.



Ukitu ⋮ historia guztia ezabatzeko.

## 3.3 Kontaktuak .....




**Kontaktuak** aukerari esker, aise eta azkar irits zaitezke harremanetan jarri nahi duzun jendearengana.

Zure telefonoan kontaktuak bistara eta sor ditzakezu, eta Gmaileko edota Interneteko nahiz zure telefonoko beste aplikazio batzuetako kontaktuekin sinkroniza ditzakezu.

### 3.3.1 Kontaktuak kontsultatzea

Zure kontaktuak ikusteko, ukitu ⓘ aplikazioen panelean.




- 1 Kontaktu-zerrendako aukera-menua bistartzeko.
- 2 Ukitu hau kontaktuak bilatzeko.
- 3 Kontaktu bizkorren panela irekitzeko.  
Luze sakatu, ezabatu nahi dituzun kontaktuak hautatzeko.
- 4 Kontaktu berri bat gehitzeko.



Ezabatutako kontaktuak telefonoko beste aplikazio batzuetatik ere ezabatuko dira, baita Internetetik ere, telefona sinkronizatzen duzun hurrengo aldian.

### 3.3.2 Kontaktuak gehitzea

Ukitu kontaktuen zerrendako  aukera, kontaktu berri bat sortzeko.


Idatzi kontaktuaren izena eta gainerako informazioa. Eremu batetik bestera pasatzeko, mugitu pantailan gora eta behera.




1 Amaitu ondoren, ukitu ikono hori gordetzeko.


- 2 Kontaktuari esleitzeko argazki bat hautatu edo atera dezakezu.
- 4 Ukitu hau aukeran dauden etiketak irekitzeko.

### Gogokoak erantsi eta ezabatzea <sup>(1)</sup>

Gogokoetara kontaktu bat eransteko, ukitu kontaktu bat haren xehetasunak ikusteko, eta, ondoren, ukitu  gogokoetara eransteko.



Kontaktu bat gogokoetatik ezabatzeko, ukitu kontaktuen xehetasun-pantailako izarra .

### 3.3.3 Kontaktuak editatzea


Kontaktu bati buruzko informazioa editatzeko, ukitu  kontaktuaren xehetasunen pantailan.

Amaitu ondoren, ukitu  gordetzeko.

### 3.3.4 Quick Contact for Android erabiltzea

Ukitu kontaktua Quick contact for Android irekitzeko. Ondoren, ukitu  edo zenbakia, deitzeko. Mezu bat bidaltzeko, ukitu .

<sup>(1)</sup> Telefonoko eta kontuko zenbakiak bakarrik gehi daitezke Gogokoak aukerara.



Kontaktu bizkorren paneleko ikonoak kontaktuari eta aplikazioei buruz duzun informazioaren eta telefonoko kontuen araberakoak dira.

### 3.3.5 Kontaktuak inportatu, esportatu eta partekatzea

Kontaktuak batetik bestera inporta edo esporta ditzakezu hauen artean: telefonoa, SIM txartela, eta telefonoaren biltegia.

Kontaktuen pantailan, ukitu  $\vdots$  aukera-menua irekitzeko. Ukitu **Ezarpenak > Inportatu/Esportatu**, eta, gero, hautatu kontaktuak nondik nora (kontuak, SIM txartela, telefonoa, telefonoaren biltegiratzea, microSD txartela...) inportatu/esportatu nahi dituzun.

Kontaktu bat edo gehiago beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera duzu kontaktuaren vCard-a bidaliz bluetootha, gmail... erabiliz.

Ukitu partekatu nahi duzun kontaktua, eta, ondoren, ukitu  $\vdots$  eta **Partekatu** kontaktuaren xehetasunen pantailan. Hautatu partekatu nahi duzun kontaktua, ukitu  $\checkmark$ , eta, ondoren, hautatu ekintza hori egiteko erabili nahi duzun aplikazioa.



### 3.3.6 Kontaktuak bistaratzea

Kontaktuen zerrendan bistaratu nahi dituzun kontaktu-zerrendak konfiguratu ditzakezu kontu bakoitzerako. Ukitu  $\vdots$  eta, ondoren **Bistaratzeko kontaktuak** kontaktuen zerrendaren pantailan; ondoren, bistaratu nahi dituzun kontaktuak hauta ditzakezu.



Ukitu lehenengo  $\vdots$ , eta, ondoren, **Ezarpenak > Bistaratzeko aukerak**, zerrenda **Izena** edo **Abizenak** aukeren arabera ordenatzeko, eta izena bistaratzeko modua – **Izena lehenbizi** edo **Abizena lehenbizi** – hautatzeko.

### 3.3.7 Kontaktuak taldekatzea eta banatzea

Bikoizketarik ez izateko, ekintza bakar batekin gehi dezakezu edozein konkatu-informazio lehendik daukazun kontaktuetara.



Ukitu informazioa gehitu nahi diozun kontaktua, eta ukitu  kontaktuak editatzeko pantailara sartzeko. Ondoren, ukitu berriro  eta ukitu **Lotu**.

Une horretan, lehenengo kontaktuarekin zein kontakturen informazioa bateratu nahi duzun hautatu behar duzu. Bigarren kontaktuaren informazioa lehengoaren informazioari batuko zaio, eta bigarren kontaktua desagertu egingo da kontaktuen zerrendatik.

Kontaktuen informazioa zatitzeko, ukitu informazioa zatitu nahi duzun kontaktua, ukitu  kontaktua editatzeko pantailara sartzeko; ondoren, ukitu berriro  eta, ondoren, ukitu **Ikusi lotutako kontaktuak** eta **BEREIZI** berresteko.


### 3.3.8 Zenbait kontutako kontaktuak sinkronizatzea

Zenbait kontutako kontaktuak, datuak eta bestelako informazioa sinkroniza daitezke, telefonoan instalatutako aplikazioen arabera.

Kontu bat gehitzeko, ukitu  kontaktuen zerrendan, eta ukitu **Ezarpenak** > **Kontuak**, edo pantaila nagusian, ukitu  eta, ondoren, **Ezarpenak** > **Erabiltzaileak eta kontuak** > **Gehitu kontua**.

Erantsi nahi duzun kontu-mota hautatu behar duzu: Google, Korporatiboa (Lana), eta abar.

Beste kontu-konfigurazio batzuekin bezala, informazio xehea sartu behar da: erabiltzaile-izena, pasahitza eta abar.

Kontu bat eta hari lotutako informazio guztia ezaba dezakezu telefonotik. Ukitu ezabatu nahi duzun kontua, ukitu  > hautatu **Kendu kontua** > eta berretsi.

### Sinkronizazio automatikoa

**Kontuak** pantailan, ukitu **Sinkronizatu automatikoki datuak**; aktibatzen denean, automatikoki sinkronizatuko dira elkarrekin telefonoaren informazioari edo online aplikatutako aldaketa guztiak.





# 4 Mezuak .....




## 4.1 Mezu berria idaztea

Telefono mugikor honen bidez, SMSak eta MMSak sortu, aldatu eta jaso ditzakezu.


Mezuetara sartzeko, ukitu .

Mezu-zerrendaren pantailan, ukitu  testu-/multimedia-mezuak idazteko.



- 1 Aukera gehiago
- 2 Testu-mezuak bidaltzeko
- 3 Emojiak eransteko

## Testu-mezu bat bidaltzea

Hartzaileak gehitzeko, idatzi hartzailearen izena edo telefono mugikorraren zenbakia **Hartzailea** barran. Ukitu **Testu-mezua** barra mezuaren testua idazteko. Bukatzen duzunean, ukitu , testu-mezua bidaltzeko.




Karaktere bereziek (azentudunek) ere handitu egiten dute SMSaren tamaina. Beraz, baliteke hartzaileari zenbait SMS bidaltzea.

## Multimedia mezu bat bidaltzea

Multimedia-mezuetan, bideoak, irudiak, argazkiak, animazioak, diapositibak eta soinuak bidal ditzakezu beste mugikor bateragarri eta helbide elektronikoz batzuetara.


SMSak, automatikoki, MMS bihurtuko dira baldin eta multimedia fitxategiak (irudia, bideoa, audioa, etab.), gaia edo posta elektronikoko helbideak eranstean badira.

Multimedia-mezu bat bidaltzeko, idatzi hartzailearen mugikorraren zenbakia **Hartzailea** barran. Ukitu **Testu-mezua** barra mezuaren testua idazteko.

Ukitu  irudi bat, bideo bat, audio-fitxategi bat, eta abar eransteko.

Bukatzen duzunean, ukitu , multimedia-mezua bidaltzeko.

## 4.2 Mezuak kudeatzea


Mezu berri bat jasotzen duzunean,  ikonoa bistaratuko da barra-egoeran, jakinarazpen gisa. Irristatu kurtsorea beherantz egoera-barratik, jakinarazpen-panela irekitzeko. Ukitu mezu berria ireki eta irakurtzeko. Mezuen aplikazioa ere ireki dezakezu, eta mezua ukitu, irekitzeko.

Mezuak elkarrizketa gisa bistaratzen dira.

Ukitu mezu bat, mezuak sortzeko pantailara joateko.



- Ukitu  zenbaki horretara deitzeko.


Mezuen doikuntzak kudeatzeko, ukitu  eta hautatu **Ezarpenak**, sarrerako ontziaren pantailan.

## 5 Egutegia, erlojua eta kalkulagailua .....


### 5.1 Egutegia .....



**Egutegia** erabil dezakezu bileren, hitzordu garrantzitsuen eta abarren segimendua egiteko.


Egutegi bistartzeko eta ekitaldiak sortzeko, ukitu  pantaila nagusian eta eta, ondoren, ukitu **Egutegia**.

#### 5.1.1 Modu anitzeko ikuspegia

Ikuspegi hauetan ikus dezakezu Egutegia: **Agenda**, **Eguna**, **Hiru egun**, **Astea** edo **Hilabetea**. Hautatzeko, ukitu .

#### 5.1.2 Gertaera berri bat sortzea

Gertaera berriak sor ditzakezu egutegiko edozein ikuspegitan.

- Ukitu .
- Osatu gertaera berri horretarako behar duzun informazio guztia. Egun osoko gertaera baldin bada, hautatu **Egun osokoa**.

- Gonbidatu jendea gertaerara. Idatzi gonbidapena jasotzea nahi duzun pertsonen helbide elektronikoak, komaz bereizita. Pertsona horiek egutegiko eta posta elektronikoko gonbidapen bat jasoko dute.
- Amaitutakoan, ukitu **GORDE**, pantailaren goiko aldean.

Asteko ikuspegiko pantailatik gertaera bat azkar sortzeko, ukitu gune huts bat xede-eremua hautatzeko (📍 bihurtuko da) eta ukitu gertaera berria sortzeko ikonoa.

### 5.1.3 Gertaera bat ezabatzea edo editatzea

Gertaera bat ezabatzeko edo editatzeko, ukitu gertaera haren xehetasunen pantailan sartzeko. Ukitu 🗑️ gertaera editatzeko edo ukitu ⋮ eta **Ezabatu** ezabatzeko.

### 5.1.4 Gertaera-gogorarazlea

Gertaera baterako gogorarazle bat jarritz gero, etorkizuneko gertaeraren ikonoa 📅 bistaratuko da egoera-barran jakinarazpen gisa, gogorarazpenaren ordua iritsitakoan.

Ukitu eta irristatu beheara egoera-barra, jakinarazpen-panela irekitzeko, eta ukitu gertaeraren izena, egutegian jakinarazpenen zerrenda ikusteko.

Ukitu **Atzera** botoia, erabiltzeko dauden gogorarazpenak barra-egoeran eta jakinarazpen-panelean edukitzeko.

## 5.2 Erlojua.....



Telefonoak erlojua du.

Ordua bistaratzeko, ukitu 🕒 pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu **Erlojua**.

### 5.2.1 Munduko erlojua

Munduko erlojua ikusteko, ukitu 🌐, erlojuaren pantailan. Ukitu 📍, ordu-eremu bat eransteko.

### 5.2.2 Alarma

Erlojuaren pantailan, ukitu 🕒 **Alarma** pantailan sartzeko.


Aktibatu 🗑️ alarma gaitzeko.


Ukitu +🕒 alarma berri bat gehitzeko:

Ukitu lehendik dagoen alarma bat alarma editatzeko pantailara sartzeko.

Ukitu 🗑️ hautatutako alarmak bertan beheara uzteko.

### 5.2.3 Atzerako kontaketa


Erlojuaren pantailan, ukitu  **Tenporizadorea** aukera horren pantailan sartzeko.




- Sartu denbora. Zenbaki-sekuentzian sartu behar duzu: orduak, minutuak eta segundoak.
- Ukitu  atzerako kontaketa abiarazteko.



Etenaldia/Berrabiarazi

### 5.2.4 KRONOMETROA

Erlojuaren pantailan, ukitu  **KRONOMETROA** aukera horren pantailan sartzeko.

- Ukitu , kronometroa abiarazteko.
- Ukitu **Bitartea** ordu eguneratuari dagozkion erregistroen zerrenda bat bistarazteko.
- Ukitu  zeroan jartzeko totala eta erregistratutako denborak.  ukitu ondoren eguneratuko dira denborak.
- Ukitu **Berezarri** erregistroa ezabatzeko.
- Ukitu **Partekatu** partekatzeko.

### 5.2.5 Erloju-doikuntzak konfiguratzea

Ukitu  eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak** aukera, **Erlojua** eta **Alarmak** aukeretan sartzeko.


## 5.3 Kalkulagailua .....



Bi panel daude aukeran: Oinarrizko funtzioen panela eta Funtzio aurreratuen panela.

Panel baten eta bestearen artean txandakatzeko, hautatu bi aukera hauetako bat:

- Irriatu oinarrizko kalkulagailuaren pantaila ezkerrera kalkulagailu zientifikoa irekitzeko.
- Jarri gailua horizontalean oinarrizko funtzioen paneletik, kalkulagailu zientifikoa irekitzeko. Aukera hau erabilgarri egoteko, aktibatuta egon behar du **Ezarpenak > Pantaila > Biratu pantaila automatikoki** aukerak.



Ukitu digituak banan-banan ezabatzeko edo luze sakatu guztiak batera ezabatzeko.

## 6 Nola konektatu .....

Telefono honetatik Internetera konektatzeko, GPRS/EDGE/3G/4G sareak edo wifia erabil ditzakezu.

### 6.1 Internetera konektatzea

#### 6.1.1 GPRS/EDGE/3G/4G

Telefonoa, SIM txartela sartuta duela, pizten den lehenengo aldiari, automatikoki konfiguratuko da sare-zerbitzua: GPRS, EDGE, 3G edo 4G.

Sarea konektatuta ez baldin badago, datu mugikorak hemen aktiba ditzakezu: **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Datu-erabilera**.

Zer sare-konexio erabiltzen ari zaren begiratzeko, ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Sare mugikorra > APN** edo **Sare-operadoreak**.

#### Sarbidetutako puntu berri bat sortzeko

Telefonora GPRS/EDGE/3G/4G sare-konexio bat eransteko, eman pauso hauek:

- Ukitu **Ezarpenak > Sare eta konexioa > Sare mugikorra > APN**.
- Ukitu **+**, eta idatzi beharrezko APNari buruzko informazioa.

- Amaitu ondoren, ukitu  eta, ondoren, **Gorde**.

### Roaming-eko datuak aktibatzeke

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Sare mugikorra > Ibiltaritzako datuak**.
- Datu-roaminga desaktibatzen baduzu ere, datuak trukutzen segi dezakezu wifi-konexio bat erabilita (ikus **“6.1.2 Wifia”** atala).


### Sare-modu gogokoena hautatzeko

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Sare mugikorra > Sarearen modu hobetsia**.

### 6.1.2 Wifia

Internetera konekta zaitezke zure telefonoak haririk gabeko sare baten seinalea jasotzen duenean. Telefonoan wifia erabil daiteke, SIM txartelik jarri gabe ere.


#### Wifia aktibatzea eta haririk gabeko sare batera konektatzea

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Wi-Fi**.
- Aktibatu .
- Wifia aktibatuta dagoenean, detektatutako wifi-sareak bistaritzen dira.

- Ukitu wifi-sare bat sare horretara konektatzeko. Hautatzen duzun sarea segurua bada, pasahitza edo bestelako egiaztagiriren bat sartu beharko duzu (sare-operadorearekin harremanetan jar zaitezke, xehetasunen berri izateko). Amaitutakoan, ukitu **KONEKTATU**.

#### Sare berri bat detektatzean jakinarazpen bat aktibarazteko

Wifi funtzioa eta sare-jakinarazpena aktibatuta daudenean, egoera-barran azalduko da wifiaren ikonoa erabilgarri dagoen haririk gabeko sare erabilgarri bat detektatu orduko telefonoak. Hona wifia aktibatuta dagoela jakinarazpen-funtzioa aktibatzeke eman beharreko pausoak:

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Wi-Fi**.
- Aktibatu **Notificación de red** .

#### Wifi-sare bat gehitzeko

Wifi funtzioa aktibatuta dagoela, zure lehentasunen arabera gehi ditzakezu wifi-sareak.

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Wi-Fi**.
- Ukitu **Gehitu sarea**.
- Idatzi sarearen izena eta sareari buruzko informazio guztia.
- Ukitu **GORDE**.

## Wifi-sare bat ezabatzea

Hona jada erabili nahi ez diren sareetara automatikoki ez konektatzeko eman beharreko pausoak.

- Aktibatu wifi-funtzioa, aktibatuta ez badago.
- Wifi-pantailan, ukitu gordetako sarearen izena.
- Ukitu **EZABATU** irekiko den elkarrizketa-koadroan.

## 6.2 Bluetooth gailuetara konektatzea <sup>(1)</sup>

Haririk gabeko irismen laburreko bluetooth komunikazio-teknologiari esker, datuak truka daitezke, edo beste bluetooth-gailu batzuetara konektatu, hainbat erabileratarako.

### Nola aktibatu bluetootha

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Bluetootha**.
- Aktibatu **Bluetootha** .

<sup>(1)</sup> Alcatelen bluetooth-entzungailuak erabiltzea gomendatzen da, telefonoarekiko bateragarri direla gauza frogatua eta bermatua baita. Jo [www.alcatelmobile.com](http://www.alcatelmobile.com)-era ALCATELen bluetooth-entzungailuei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero.

Pantailan zure gailuaren eta eskuragarri dauden beste gailu batzuen izenak bistaratuko dira.

### Gailuaren izena aldatzeko


- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Bluetootha**.
- Ukitu gailuaren izena.
- Sartu izen bat eta ukitu **Gailuaren izena** berresteko.

### Telefonoa bluetooth-gailu batekin sinkronizatzeko edo konektatzeko

Beste gailu batekin datuak trukatzeko, bluetootha aktibatu eta trukea egin nahi duzun bluetooth-gailuarekin sinkronizatu behar duzu telefonoa.

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Bluetootha**.
- Ukitu **Bikotetu beste gailu bat**.
- Ukitu sinkronizatu nahi duzun zerrendako Bluetootha gailu bat.
- Elkarrizketa-koadro bat azalduko da. Ukitu **SINCRONIZAR** berresteko.
- Sinkronizazioa ondo egin bada, telefonoa gailuarekin konektatuko da.

Bluetooth-gailu baten telefonoarekiko sinkronizazioa eteteko edo konexioa bertan behera uzteko

- Ukitu  lotura kendu nahi duzun zenbakiaren ondoan.
- Ukitu **EZABATU** berresteko.

## 6.3 Ordenagailu baterako konexioa USB bidez

USB kableari esker, multimedia-fitxategien eta bestelako fitxategi batzuen transferentzia egin daiteke telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

### Zure telefonoa ordenagailu batera konektatzeko

Erabil ezazu zure telefonoarekin batera datorren USB kablea ordenagailuko USB ataka batera konektatzeko. USBa konektatuta dagoela dioen ohar bat jasoko duzu.

Irreki ezazu jakinarazpen-panela, eta ukitu **Gailua USB bidez kargatzen**; ondoren, hurrengo elkarrizketakoadroan, hautatu nola duzun egin fitxategien transferentzia. Lehenespenez, hautatuta dagoen aukera **Kargatu gailua** da.



MTP erabili aurretik, ziurtatu kontrolagailua instalatuta dagoela (Windows Media Player 11 edo hortik gorako bat).

## 6.4 Telefonoko datu mugikorren konexioa partekatzea

Telefonoko datu-konexioa parteka dezakezu USB kable baten bidez (USB modema) ekipa bakar batekin, edo bluetootha bidez (bluetootha bidezko modema) edo wifi bidez aldi berean lau gailurekin.



Funtzio hauek erabiliz gero baliteke sare-operadoreak karguren bat kobratzea. Baliteke roamingeko eremuetan tarifa gehigarriak aplikatzea.

### Telefonoaren datu-konexioa partekatzea USB bidez, bluetooth bidez edo wifi bidez

Sakatu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Konexioa partekatzea** funtzio horiek aktibatzeke.

### Mugikorraren wifi-eremuari izena aldatzea, edo eremua babestea

Wifi-eremua aktibatzen baduzu, telefonoko wifi-sarearen izena (SSID) alda dezakezu, babesteko.


- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > Konexioa partekatzea > Wi-Fi sare publikoa**.
- Ukitu **Konfiguratu Wi-Fi partekatzea**, SSID sarea aldatzeko edo sareko segurtasuna berrezartzeko.
- Ukitu **GORDE**.



## 6.5 Sare pribatu birtualetara konektatzea

Sare pribatu birtualek (SPB) aukera ematen dute tokiko sare babestu baten baliabideetara kanpotik konektatzeko. Enpresek, eskolek eta erakundeek SPBak erabiltzen dituzte haien erabiltzaileak sare lokaleko baliabideetara sar daitezen sarean ez daudenean edo haririk gabeko sare batera konektatzen direnean.

### SPB bat eranstea

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > VPN** eta, ondoren, ukitu .
- Irekitzen den pantailan, segi sare-administratzailearen jarraibideei SPBaren doikuntzen osagai bakoitza konfiguratzeko.
- Ukitu **GORDE**.

SPBa Configuración de red VPN pantailako zerrendara gehituko da.



SPB bat erantsi aurretik, pantaila blokeatzeko modu bat ezarrita eduki behar duzu telefonoan.

### SPB batera konektatzeko edo deskonektatzeko

SPB batera konektatzeko:

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > VPN**.


- Gehitutako SPB horiek zerrendan bistaratuko dira. Hautatu zer SPBra konektatu nahi duzun.
- Irekitzen den elkarrizketa-koadroan, idatzi eskatzen dituen egiaztagiria, eta ukitu **KONEKTATU**.

SPB batetik deskonektatzeko:


- Hautatu zer SPBtik deskonektatu nahi duzun. Elkarrizketa-koadro bat bistaratuko da; ukitu **UTZI**.

### SPB bat editatzeko edo ezabatzeke

SPB bat editatzeko:

- Ukitu **Ezarpenak > Sarea eta konexioa > VPN**.
- Gehitutako SPB horiek zerrendan bistaratuko dira. Ukitu  ikonoa, editatu nahi duzun SPBaren ondoan.
- Editatu ondoren, ukitu **GORDE**.

SPB bat ezabatzeke:

- Ukitu  ikonoa (hautatutako SPBaren ondoan), eta ukitu **BORRAR** ezabatzeke.


# 7 Multimedia-aplikazioak .....


## 7.1 Kamera .....



Mugikor honek kamera du, eta argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu.

Kamera erabili aurretik, ziurtatu lentea babesteko estalkia kendu diozula, irudiaren kalitateari eragin ez diezaion.

Argazki edo bideo bat egiteko, ukitu  pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Kamera**.



### 1 Flash modua.

Ukitu ezazu, kameraren flasha aktibatu eta desaktibatzeke.

### 2 Aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzeko.

### 3 Iragazkien botoia



Ukitu hemen, aktibo duzun iragazkiaren aurrebista ikusteko. Ukitu iragazki bat, hura aplikatzeko eta aurreko pantailara itzultzeko.

### 4 Elkartu eta bereizi bi hatz zooma gerturatzeko eta urruntzeko.




### 5 Egindako argazkiak edo bideoak ikusteko.




### 6 Argazki bat ateratzeko

### Argazki bat ateratzeko



Pantailak bisorearen funtzioa egiten du. Fokatu objektua edo paisaia bisorean, eta, behar izanez gero, ukitu pantaila fokuratzeko; ondoren, ukitu  ikonoa argazkia ateratzeko. Argazkia automatikoki gordetzen da. Bestela, luze sakatu , argazki-segida bat ateratzeko.

## Bideo bat grabatzea

Ukitu  ikonoaren eskuineko aldea, kameraren modua bideora aldatzeko; gero, ukitu  ikonoaren ezkerreko aldea bideoa grabatzen hasteko.  ikonoaren ezkerreko aldea ukituta, bideo-grabazio batean argazki bat atera dezakezu.

Ukitu  bideo-grabazioan etenaldi bat egiteko, eta ukitu  jarraitzeko. Ukitu  grabazioa eteteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.

## Ateratako argazkiak edo egindako bideoak bistaritzen ari zaren bitartean dituzun beste aukera batzuk


- Irristatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, egindako argazkiak edo bideoak ikusteko.
- Argazki edo bideo bat partekatzeko, ukitu  eta, ondoren, Gmail, Bluetooth, MMS, eta abar.
- Ukitu  kamerara itzultzeko.

## 7.1.1 Moduak eta doikuntzak

Ukitu  flasharen modua aldatzeko.

- *Automatikoa:*  
Kameraren modu lehenetsia da.
- *Panoramikoa:*  
Ukitu hor argazkia panoramikoaren funtzioa aktibatzeko. Sakatu argazkiak ateratzeko botoia, argazki panoramikoa ateratzen hasteko, eta mugitu telefonoa leun, pantailako lerroak adierazten duen norabidean. Hutsune guztiak bete direnean, argazkia automatikoki gordeko da. Hutsune guztiak bete ez badira, ukitu berriro argazkiak ateratzeko botoia, argazkia gordetzeko.
- *Tartea*  
Atera zenbait argazki, eta prestatu bideo bat horiekin, kamera lasterrear, denbora-tarte jakinekin.
- *Sare sozialak*
- *Argi-arrastoa*

## Doikuntzak

- *Bideo-egonkortzailea (EIS):*  
Sakatu  irudiaren egonkortze elektronikoko funtzioa aktibatzeko (EIS). Horrek aukera ematen du esposizioan kamera kameraren mugimenduari lotutako lausotzea gutxitzeko.

- **Lauki-sarea**

Aktibatu  lauki-sarearen ikuspegia aktibatzeko. Funtzio honek pantaila zati berdinetan zatitzen du, eta argazki hobeak egiten laguntzen du, elementuak laukiekin lerroka baitaitezke (adibidez, horizontea edo eraikinak).

- **Kokapenaren informazioa gordetzea**

Aktibatu , argazkiei eta bideoei kokapenaren etiketa jartzeko. GPS lokalizazio-zerbitzua aktibatuta dagoenean dago aukera hau.

## 7.2 Galeria .....



Multimedia-edukiak eta bideoak erreproduzitzeko eta argazkiak ikusteko da galeria. Argazki eta bideoetarako zenbait zerbitzu aurreratu ere eskaintzen ditu.

Kargatutako argazkiak edo bideoak ikusteko, ukitu pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Galeria**.



Eragiketa gehiago egiteko, hautatu argazkiak.





### Argazkiak ikusteko edo bideoak erreproduzitzeko


Argazkiak eta bideoak albumetan bistaritzen dira **Galeria** aukeran.




## Argazkiekin lan egitea

Argazkiekin lan egin dezakezu, besteak beste: bira eman edo moztu, lagunekin partekatu, kontaktu bati esleitu edo pantaila-atzealde gisa jarri.


Bilatu landu nahi duzun argazkia, eta ukitu argazkia pantaila osoko ikuspegian. Ukitu  argazkia partekatze edo  editatzeko. Ukitu  argazkia gogoko gisa hautatzeko. Ukitu  argazkia ezabatzeko, eta hautatu **Ezarri honela**: argazki bat kontaktu bati esleitzeko edo pantaila-atzealde moduan ezartzeko.

Ukitu  argazkien ikuspegian, pantaila osoan, argazkia editatzeko, **Editor (predeterminado)** edo beste editore batzuk erabilia.



 Efektuak hauta ditzakezu: **pontxea, vintage-a, zuri-beltza, zuritu**, eta abar.




 Ertza gehitzeko.

 Aukera hauek erabiltzeko: **moztu, zuzendu, biratu, ispilatu** edo marraztu.

 Argazkiaren kolorea doitzeko.

## Sorten funtzionamendua

Galeriak aukera ematen du zenbait argazki edo bideo hautatu eta sortaka lan egiteko.

**Uneak** pantailan, ukitu  eta, ondoren, **Hautatu elementuak** sorten funtzionamendua aktibatzeko (bestela, luze sakatu bilduma edo argazkia). Ondoren, ukitu landu nahi dituzun bideoak edo argazkiak. Ukitu  hautatutako fitxategiak ezabatzeko. Ukitu  hautatutako fitxategiak partekatze.


## 8 Beste batzuk .....

### 8.1 Irratia .....



Zure telefonoaren irratiak<sup>(1)</sup> RDS<sup>(2)</sup> funtzioa du. Zure telefonoa irrati arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero.

Irrati bat entzuteko, ukitu  pantaila nagusian eta, ondoren, ukitu **Irratia**.




- 1 Ukitu hau gordetako irrati-kateen zerrenda irekitzeko eta ikusteko.
- 2 Ukitu hau uneko irrati-frekuentzia Gogokoak-en sartzeko.
- 3 Irristatu uneko maiztasuna aldatzeko.
- 4 Ukitu hau 0,1 MHz igotzeko. Luze sakatu Bilatu aukera, eta maiztasun handiagoko hurrengo katera jo.
- 5 Ukitu hemen gordetako hurrengo irratiara aldatzeko.
- 6 Ukitu hau bozgorailua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

<sup>(1)</sup> Irratiaren kalitatea une horretan zauden eremuan irrati-kate horrek duen estalduraren arabera da.

<sup>(2)</sup> Sare-operadorearen eta merkatuaren arabera.

- 7 Ukitu hau 0,1 MHz jaisteko. Luze sakatu Bilatu aukera, eta maiztasun txikiagoko hurrengo katera jo.
- 8 Ukitu hemen gordetako aurreko irratira aldatzeko.
- 9 Ukitu hau erreproduzitzeko/gelditzeko.

 Irratia entzuteko, entzungailuak erabili behar dituzu. Irrati-antenek bezala funtzionatzen dute entzungailuek.

### Erabilgarri dauden aukerak:

- *Kanalak gordetzea*  
Ukitu hau uneko irradi-frekuentzia Gogokoak-en sartzeko. Uneko irratia gorde bada, desagertu egingo da.
- *Kanalak bilatzea*  
Ukitu hau kanalak bilatzeko.
- *Ezabatzea*  
Kanala ezabatzeko.
- *Maiztasuna jartzea*  
Kanala aktibatzeke maiztasuna eskuz sartzeko.
- *Irrati-kateari buruzko informazioa*  
Markatu kontrol-laukia hau, katearen informazioa bistaratzeko.

- *Irtetea*  
Irratia itzaltzeko.

## 8.2 Laguntza-zentroa .....



**Laguntza-zentroa** aukerak lagunduko dizu gehiago jakiten ohiko galderai, funtzionamenduko jarraibideei eta arazoak konpontzeko moduei buruz, besteak beste. Horrez gain, zure komentarioak bidal ditzakezu zerbitzu honen bidez.

## 8.3 Beste aplikazio batzuk <sup>(1)</sup>

Telefonoan aurrez instalatuta daude sail honetan aipatutako aplikazioak. Instalatuta dauden hirugarren batzuen aplikazioei buruzko hitzaurre labur bat irakurtzeko, begiratu telefonoarekin batera eman dizuten liburuxka. Hirugarrenen aplikazio gehiago deskargatzeko eta instalatzeko, erabili Google Play Store aplikazioa.

<sup>(1)</sup> Herrialdearen eta operadorearen arabera egongo dira erabilgarri aplikazioak.

## 9 Googleren aplikazioak .....

Googleren aplikazioak aurrez instalatuta daude telefonoan, eraginkortasun gehiagorekin lan egin dezazun eta bizitzaz gehiago goza dezazun.

Eskuliburu honetan aplikazioak labur aipatzen dira. Ezaugarriak xeheago jakiteko eta erabiltzailearen eskuliburua eskuratzeko, ikus gaiari buruzko webguneak edo aplikazioetan ematen diren azalpenak.

Funtzio guztiak erabiltzeko, Google kontu batekin erregistratzea gomendatzen da.

### 9.1 Chrome

Interneterako web-nabigatzaile bat da.

Nabigatzailea duten gailu guztien markagailuak, nabigazio-historia eta doikuntzak zure Google kontuarekin sinkroniza daitezke.

### 9.2 Gmail

Googleren onlineko posta elektronikoko zerbitzua da Gmail, eta telefonoa konfiguratzeko den lehenengo aldiaren konfiguratzeko da. Hau egin dezakezu aplikazio hori erabiliz: mezu elektronikoak bidali eta jaso, mezu elektronikoak etiketa bidez kudeatu eta artxibatu, etab. Gmail-eko zure kontuarekin automatikoki sinkroniza daitezke mezu elektronikoak.

### 9.3 Maps Go

Google Map-ekin, hauek ikus ditzakezu: satellite bidezko irudiak, kale-izendegiak, kaleen 360°-ko ikuspegi panoramikoak eta zirkulazioaren egoera denbora errealean. Gainera, oinez, autoz edo garraio publikoan egiteko ibilbideak planifika ditzakezu. Aplikazio horri esker, zure kokapena jakin dezakezu, tokiak bilatu ditzakezu eta zure bidaietarako bideak iradokitzea eska dezakezu.

### 9.4 YouTube

YouTube aplikazioarekin bideoak online parteka ditzakezu; erabiltzaileak bideoak kargatu, ikusi eta parteka ditzake. Besteak beste, eduki hauek daude aukeran: bideoak, telebista-saioak, musika-bideoak, eta beste eduki batzuk (bideoblogak, film laburren bideo originalak eta bideo hezitzaileak). Haren streaming-funtzioaren bidez, bideoak ia Internetetik deskargatzen ari diren unean bertan ikus ditzakezu.



## 9.5 Play Store

Android sistema eragilerako aplikazioen denda ofiziala da; denda horretan, erabiltzaileek aplikazioak eta jokoak deskarga ditzakete. Aplikazio batzuk doan dira, eta beste batzuk ordaindu egin behar dira deskargatzeko.

Play Storen, bilatu behar duzun aplikazioa, deskargatu, eta, ondoren, segi instalazioko jarraibideei, aplikazioa instalatzeko. Horrez gain, aplikazioak desinstalatu eta eguneratu daitezke eta deskargak kudeatu.


## 9.6 Play Music

Musika transmititzeko eta biltegitratzeko zerbitzua da, onlinekoa eta Googlerena.

Abesti pila bat kargatu eta entzun ditzakezu doan. Internetera konektatutako gailuetarako musika-transmisioa eskaintzeaz gain, Google Play Music aplikazioan musika gorde dezakezu, eta Interneteko konexiorik gabe entzun. Play Musicen bidez eskuratutako abestiak automatikoki gehitzen dira erabiltzailearen kontura.

# 10 Doikuntzak



Doikuntzetara joateko, ukitu  pantaila nagusian, eta, ondoren, ukitu **Ezarpenak**.

## 10.1 Sareak eta Internet

### 10.1.1 Wifia

Wifia erabiliz gero, Interneten nabiga dezakezu SIM txartelik gabe, haririk gabeko sare baten estaldura duzunean. Egin behar duzuna da **Wifia**ren pantailan sartu, eta sarbide-puntu bat konfiguratu, telefonoa haririk gabeko sarera konektatzeko.

Wifia erabilerari buruzko jarraibide xeheak nahi izanez gero, ikusi **6.1.2 Wifia**.

### 10.1.2 Bluetootha

Bluetootharen bidez datuak truka ditzakezu (bideoak, argazkiak, musika, eta abar), Bluetooth teknologia duten eta gertu dauden beste gailu batzuekin (telefonoa, ordenagailua, inprimagailua, entzungailuak, ibilgailuetako kita eta abar).

Bluetoothari buruzko informazioa lortzeko, ikusi **“6.2 Bluetooth gailuetarako konexioa”**.

### 10.1.3 Sare mugikorra

Menu honetan aukera hauek dituzu: **Ibilitaritzako datuak**, **Hobetsia**, **Sarearen modu hobetsia**, **Sarbide-puntuen izenak** eta **Sare-operadoreak**.

### 10.1.4 Wifi-eremua eta USB modema

Funtzio honekin zure telefono mugikorraren datu-konexioa parteka dezakezu USB baten bidez edo wifi mugikorraren sarbide-puntu gisa (ikusi “**6.4 Telefonoaren datu mugikorren konexioa partekatzea**”).


### 10.1.5 SIM txartelak

Ukitu hautatzeko SIM 1 edo SIM 2 <sup>(1)</sup> erabili nahi baduzu sarera konektatzeko, deiak egiteko edo SMS mezuak bidaltzeko.

### 10.1.6 SPBa

SPBari buruzko informazio gehiago behar izanez gero, zoaz “**6.5 Sare pribatu bertualetara konektatzea**” atalera.

### 10.1.7 Hegazkin modua

Aktibatu **Hegaldi modua** , haririk gabeko konexio guztiak (wifia, bluetootha, eta abar) aldi berean desaktibatuzko.

<sup>(1)</sup> 5033D modeloan bakarrik.

### 10.1.8 Datuen erabilera

#### Datuak aurreztea

Datuak aurrezteko aukera aktibatzean, datu-erabilera murriztu dezakezu, aplikazio batzuek datuak bigarren mailan bidal edo jaso ez ditzaten.

#### Datu mugikorrak

Beste operadore batzuen sare mugikorretan daturik ez baduzu transmititu behar, desaktibatu **datu mugikorrak** roaming-eko gastu handirik ez izateko, batez ere daturik kontratatu ez baduzu mugikorrerako.



Telefonoak datuen erabilera neurtzen du; hala ere, baliteke operadoreak beste kalkulu bat egitea.

### 10.2 Pantaila

Menu honetan zenbait atal doitu ditzakezu: pantailaren distira, pantaila-atzealdea, itxarote-denbora, letra-tamaina, eta abar.

Gailuari bira ematean pantailaren edukiak ere bira eman dezan, ukitu **Biratu pantaila automatikoki**.


## 10.3 Segurtasuna eta kokapena

Ukitu aukera hau **GAILUAREN SEGURTASUNA** doitzeko; besteak beste: **Pantailaren blokeoa**, pantaila-blokeorako lehentasunak, **Smart Lock**, aplikazioak blokeatzeko aukerak, **Enkriptatu telefonoa**, **SIM txartelaren blokeoa**, eta **PRIBATASUNA, GAILUAREN ADMINISTAZIOA, KREDENTZIALEN BILTEGIA**.

## 10.4 Bateria

Ukitu kudeaketa-pantailako edozein kategoria zure energia-kontsumoa zenbatekoa den jakiteko.

## 10.5 Smart Manager

Aktibatu **Smart Manager**  aplikazioak automatikoki hasteko aukerak murrizteko; izan ere, sistemari azkarrago ibiltzen lagundu diezaioke. eta bateriaren iraupena luza dezake.

## 10.6 Funtzio aurreratuak

Ukitu, aukera hauek irekitzeko: **DuraSpeed** eta **Funtzioen lasterbideak**.

## 10.7 Biltegitratzea

Erabili doikuntza hau zure telefonoaren eta microSD txartelaren edukiera osoa eta erabilgarria kontrolatzeko.

## 10.8 Aplikazioak eta jakinarazpenak

Ukitu telefonoan instalatutako aplikazioei buruzko xehetasunak ikusteko, haien datuak kudeatzeko edo haiek geldiarazteko.

**Jakinarazpenak** menuan, berriz, hau konfigura dezakezu: aplikazio jakin baten jakinarazpenak blokeatzea nahi duzun, eduki konfidentziala gorde nahi duzun, etab.

**Aplikazio baimenak** menuan, aplikazio-baimenak eman ditzakezu; adibidez, **kamerara**, **kontaktuetara**, **kokalekura** eta abarretara sartzekoak.

## 10.9 Soinua

Ukitu deien eta jakinarazpenen tonuak, musika eta beste audio-doikuntza batzuk doitzeko.

## 10.10 Erabiltzaileak eta kontuak

Ukitu zure posta elektronikoa eta beste kontu bateragarri batzuk eransteko, kentzeko eta kudeatzeko. Horrez gain, doikuntza hauek erabil ditzakezu jakiteko ea aplikazioek beren planifikazioaren arabera bidaltzen, jasotzen eta sinkronizatzen dituzten datuak eta ea aplikazio guztiek erabiltzailearen datuak automatikoki sinkroniza ditzakete.

Ukitu **Gehitu kontua**, hautatutako aplikazioan kontu bat gehitzeko.

## 10.11 Google

Ukitu zure Googleko kontua eta zerbitzuen doikuntzak konfiguratzeko.

## 10.12 Irisgarritasuna

Erabili irisgarritasun-doikuntzak, telefonoan erabiltzaileak instalatutako irisgarritasun-osagarriak konfiguratzeko.

## 10.13 Sistema


### 10.13.1 Hizkuntza eta testua idaztea

Ukitu, besteak beste, aukera hauek doitzeko: hizkuntza-doikuntzak, pantailako teklatura, ahotsaren bidez idazteko doikuntzak eta erakuslearen abiadura.

### 10.13.2 Data eta ordua

Erabili **Data eta ordua** aukerako doikuntzak, data eta ordua bistaratzeko modua pertsonalizatzeko.

### 10.13.3 Segurtasun-kopia

Aktibatu  telefonoaren doikuntzen eta beste aplikazio-datu batzuen segurtasun-kopia egiteko Googleren zerbitzarietan. Telefonoa aldatzen baduzu, segurtasun-kopia egin diezun doikuntza eta datuak berrezarriko dira telefono berrian, zure Googleko kontuarekin saioa hasten duzunean. Funtzio hori aktibatuz gero, doikuntza eta datu askoren segurtasun-kopia egiten da, besteak beste: wifia pasahitzak, gogokoak, instalatutako aplikazioen zerrenda, hiztegia sartu dituzun hitzak eta Ezarpenak aplikazioan konfiguratutako doikuntza gehienak. Aukera hau desmarkatuz gero, ez da egingo zure konfigurazioaren segurtasun-kopiarik, eta lehendik dauden segurtasun-kopia guztiak ezabatuko dira Googleko zerbitzarietatik.

### 10.13.4 Garatzailearen aukerak

Funtzio hau aktibatuzeko, ukitu **Ezarpenak > Telefonoari buruz**, eta, gero, ukitu **Konpilazio-zenbakia** zazpi aldiz. **Garatzaile-aukerak** aukera erabilgarri egongo da. Garatzailearen aukera-pantailan Android aplikazioak garatzeko doikuntza erabilgarriak daude.

### 10.13.5 Aukera berrezartzea

Ukitu aukera hau DRMa, wifia-mugikorra eta bluetootha berrezartzeko, aplikazioen lehenetasunak berrezartzeko edo datu guztiak ezabatzeko.

### 10.13.6 Araudia eta segurtasuna


Ukitu, produktuari buruzko informazioa ikusteko.

### 10.13.7 Telefonoari buruz

Besteak beste, informazio hau du: eguneraketak, egoera, lege-informazioa, modelo-zenbakia, kernel bertsioa, konpilazio-zenbakia eta erabiltzailearen eskuliburua.

# 11 Atera ahalik eta etekin handiena zure telefonoari .....

## 11.1 FOTA eguneratzea

Erabili Actualización FOTA tresna (Firmware Over The Air) telefonoaren softwarea eguneratzeko. Sistemaren **eguneratze**etara sartzeko, ukitu  pantaila nagusian, eta hautatu **Ezarpenak > Sistema > Telefonoari buruz > Sistemaren egunerazeak**.

Sistema eguneratu nahi baduzu, ukitu **Oraintxe bilatu berri bat** eta, amaitutakoan, telefonoak softwarearen azken bertsioa izango du. Eguneraketak bilatu aurretik, datu-konexioa edo wifia aktibatu behar duzu. Egiaztatze automatikoko maiztasunerako doikuntzak ere eskuragarri daude telefonoa berrabiarazten denean. Egiaztatze automatikoa hautatu baldin baduzu, sistemak bertsio berri bat bilatzen duenean, elkarrizketa-koadro bat irekitzen da, deskargatzea edo kasurik ez egitea hautatzeko. Egoera-barran jakinarazpen bat bistaratuko da.

FOTA bidez deskargatzean edo eguneratzean, ez aldatu biltegitratze-kokapen lehenetsia, errorerik gerta ez dadin pakete-eguneratze zuzenak gordetzean

# 12 Osagarriak .....

## Osagarri estandarrak

1. Kargagailua
2. WH15
3. Eskuliburu laburra
4. Produktuaren segurtasunari buruzko informazio-liburuxka
5. LCD eranskailua
6. Bateria



- Herrialdeen araberako osagarriak.
- Erabili gailuarekin datozen Alcatelen bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik.

# 13 Telefonoaren bermea .....

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako<sup>(1)</sup>, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEla, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek hiru (3) hilabeteko bermea dute akats bererako. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin liteke konponketa edo telefono-aldaketa.

<sup>(1)</sup> Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bititza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik izaten dituzten akatsak:

- 1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzea.
- 2) TCL Communication Ltd-k emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzea.
- 3) Konponketak edo aldaketak TCL Communication Ltd-k edo haren filialek edo baimendutako mantentze-lanetako zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egiteagatik.
- 4) TCL Communication Ltd-ek baimendutakoak ez diren pertsonen software- edo hardware-aldaketak edo -doikuntzak egin badituzte.
- 5) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goitentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo seriezenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCL Communication Ltd edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badie.

Herralde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme inplizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legeko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioren bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (91 375 33 74) edo helbide honetara idatziz:

TCL Communication Europe SAS  
Immeuble Le Capitole  
Parc des Fontaines  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
Frantzia

# 14 Arazoak eta irtenbideak ...

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik, hona hemen zenbait jarraibide gailuko arazo batzuk konpontzen lagunduko dizutenak:

- Kargatu bateria erabat haren funtzionamendua optimizatzen.
- Ezabatu telefonotik beharrezkoak ez diren aplikazioak edo fitxategiak errendimendua hobetzeko.
- Eguneratu telefonoaren softwarea eguneratzeko aplikazioaren bidez. Edo ukitu **Ezarpenak > Sistema > Telefonoari buruz > Sistemaren eguneratzeak** softwarea eguneratzeko.
- Berrezarri telefonoa **Ezabatu datu guztiak** aukera erabilita (berrezarri jatorrizko datuak). Ukitu **Ezarpenak > Sistema > Berrezartzeko aukerak > Ezabatu datu guztiak** (berrezarri jatorrizko datuak). Bestela, luze sakatu pizteko tekla eta bolumena igotzeko tekla aldi berean, telefonoa itzalita dagoela, **Recovery de Android** menura sartzeko. Telefonoko datu guztiak galduko dira, betiko. Oso gomendagarria da telefonoko datu guztien segurtasun-kopia bat egitea fabrikako doikuntzak berrezarri aurretik.

Egiatzatu, halaber, puntu hauek ere:

## Telefonoa ezin da piztu edo blokeatuta dago

- Telefonoa piztu ezin baduzu, kargatu gutxienez 20 minutuz, behar den gutxieneko bateria-karga duela ziurtatzeko. Ondoren, saiatu berriz pizten.
- Telefonoa begizta batean erortzen bada pizteko edo itzaltzeko animazioan eta ezin bada sartu erabiltzailearen interfazera, luze sakatu **pizteko** tekla, berrabiarazteko. Hala, hirugarren batzuen aplikazioek eragiten dituzten SEaren abiarazte- arazoak saihesten dira.
- Aukera horiekin konpontzen ez bada, berrabiarazi telefonoa pizteko tekla eta bolumena igotzeko tekla batera erabiliz, hautatu hizkuntza bat eta, ondoren, hautatu **Ezabatu datu guztiak/berrezarri jatorrizko datuak**. Sakatu **bolumen-tekla** hautatzeko, eta **pizteko** tekla hautaketa bakoitza berresteko.

## Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Telefonoak erantzuten ez badu, itzali **pizteko** tekla luze sakatuta, itzali arte, eta, ondoren, piztu berriro.
- Zure telefonoaren bateria atera baldin badaiteke, atera, eta sartu berriz; gero, berrabiarazi telefonoa.
- Hala ere funtzionatzen ez badu, berrabiarazi telefonoa.



### Telefonia bere kasa itzaltzen da

- Ziurtatu pantaila blokeatuta geratzen dela telefonia erabiltzen ari ez zarenean, eta begiratu **pizteko** teklak ez erantzuteko arrazoia desblokeatze-pantaila den.
- Begiratu bateriaren kargatze-maila.
- Hala ere funtzionatzen ez badu, berrabiarazi telefonia edo eguneratu softwarea.

### Telefonia ez da behar bezala kargatzen

- Ziurtatu telefonoarekin datorren **Alcatel** kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Zure telefonoaren bateria atera baldin badaiteke, egiaztatu ondo sartuta dagoela, eta, beharrezkoa bada, garbitu bateriaren kontaktua. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik.
- Begiratu ea bateria erabat agortuta dagoen; denbora luzez egon bada deskargatuta, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.
- Egiaztatu kondizio normaletan kargatzen dela (0 °C eta 40 °C bitartean).
- Atzerrian, begiratu tentsio-sarrerarekin bateragarria den.

### Nire telefonia ez da konektatzen inolako saretara, edo "Zerbitzurik gabe" bistaratzen da

- Saiatu sarera konektatzen, fisikoki beste toki batera mugituz.
- Egiaztatu sarearen estaldura, operadoreari galdetuta.
- Egiaztatu SIM txartela baliozkoa dela, operadoreari galdetuta.
- Sareak gainkarga baldin badu, saiatu berriz geroago.

### Telefonia ezin da Internetera konektatu

- Egiaztatu zure SIM txartelaren Interneteko sarbide-zerbitzua eskuragarri dagoela.
- Begiratu telefonoaren Interneteko konexioaren doikuntzak.
- Ziurtatu sare-estaldura duen toki batean zaudela.
- Saiatu geroago edo beste toki batetik konektatzen.

### SIM txartel baliogabea

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Ikusi SIM txartelaren txipa hondatuta dagoen.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

## Nire telefonoak ezin du deirik egin

- Egiaztatu markatu duzun zenbakia zuzena dela eta **Deitu** sakatu duzula.
- Nazioarteko deietarako, begiratu herrialdeko/eremuko kodeak.
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula irteerako deiak debekatu.
- Egiaztatu telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

## Nire telefonoak ezin du deirik jaso

- Egiaztatu telefonoa piztuta eta sare batera konektatuta dagoela (eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela).
- Egiaztatu abonua operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar)
- Egiaztatu ez dituzula sarrerako deiak desbideratu.
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk debekatu.
- Egiaztatu telefonoa ez dagoela hegazkin-moduan.

## Solaskidearen izena edo zenbakia ez da bistaratzen deia jasotzean

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela.
- Deitzen ari den pertsonak bere izena edo zenbakia ezkutatuko zituen beharbada.

## Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen

- Egiaztatu SIM txartela ez dagoela kaltetuta.
- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

## Deien soinuaren kalitatea eskasa da

- Dei bat egiten ari zarela bolumena doitu dezakezu **bolumen-tekla** sakatuta.
- Begiratu sarearen intentsitatea. Mugitu seinale-intentsitate sendoagoa duen beste toki batera.
- Egiaztatu hargailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

## Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak

- Egiaztatu badagokizula zerbitzu hori operadoreari ordaintzen diozunaren arabera.
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela behar **Alcatelen osagarriren** bat.

## **Nire kontaktueta zerbaki bat hautatzen dut, baina ezin dut markatu**

- Egiaztatu erregistroaren zenbakia ongi gorde duzula.
- Nazioarteko zerbaki batera deitzen baduzu, egiaztatu herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula.

## **Ezin dut kontakturik gehitu**

- Egiaztatu zure SIM txartela ez dagoela beteta; ezabatu kontaktu batzuk edo gorde itzazu telefonoan.

## **Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian**

- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez.

## **Ezin naiz ahots-postontzira sartu**

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziaren zenbakia ondo sartuta dagoela hemen: "Ahots-postontzia zerbaki nagusia".
- Sarea okupatuta badago, saiatu geroago.

## **Ezin dut MMSrik bidali edo jaso**

- Begiratu telefonoa beteta dagoen.
- Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun ala ez, eta begiratu MMS parametroak.

- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua.
- Litekeena da zerbitzariaren zentroa betea egotea. Saiatu geroago.

## **SIM txartelaren PINa blokeatuta dago**

- Jarri harremanetan operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko.

## **Ezin dut telefonoa ordenagailura konektatu**

- Egiaztatu USB ataka ez dagoela kaltetuta. Ez baldin badabil, probatu ordenagailuko beste USB ataka batean.
- Ziurtatu USB kontrolatzaileak behar bezala instalatuta daudela.
- Windows ordenagailu bat erabiltzen baduzu, ziurtatu MTP modua onartzen duela. Mac bat erabiltzen baduzu, instalatu Android File Transfer hemendik: [www.android.com/filetransfer/](http://www.android.com/filetransfer/).

## **Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu**

- Egiaztatu telefonoan nahikoa leku badagoela deskargarako.
- Hautatu microSD txartela deskargatutako fitxategiak gordetzeko.
- Galdetu operadoreari zure harpidetza zer egoeratan dagoen.

## **Beste gailu batzuek ez dute detektatzen telefonia bluetooth bidez**

- Egiaztatu bluetooth funtzioa aktibatuta dagoela eta zure mugikorra ikusgai dagoela beste erabiltzaileentzat
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzemate-eremuan daudela.

## **Bateria oso azkar kontsumitzen da**

- Egiaztatu telefonoari erabat kargatzen utzi diozula (150 minutu gutxienez).
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu eta gero, itxaron 20 bat minutu karga-maila zehatza jakiteko.
- Pantailaren distira doitu dezakezu.
- Luzatu ahalik eta gehiena posta elektronikoa automatikoki begiratzeko tartea.
- Eguneratu eskuz albisteak eta eguraldiari buruzko informazioa edo handitu automatikoki egiaztatzeko denbora-tartea.
- Itxi bigarren planoan exekutatzeko diren aplikazioak, luzaroan erabili behar ez badituzu.
- Desaktibatu bluetootha, wifia eta GPSa erabili behar ez dituzunean.

## **Telefonia berotu egiten da denbora luzez deiak egin, jokoetan ibili, Interneten nabigatu edo aplikazio konplexuak exekutatu gero**

- Normala da, CPUa datu-bolumen handiak kudeatzen ari baita. Telefonia ohiko tenperaturara itzul dadin, amaitu ekintza horiek.

## **Fabrikako datuak berrezarri ondoren, ezin dut nire telefonia erabili Google kontuaren kredentzialak sartu gabe**

- Fabrikako datuak berrezarri ondoren, gailu honetan erregistratuta zeuden Google kontuaren egiaztagirak sartu beharko dituzu.
- Ez badituzu gogoan zure Google kontuaren egiaztagirak, egin Google kontuak berreskuratzeko prozesua.
- Hala ere ezin baduzu erabili telefonia, jarri harremanetan konponketa-zentro baimenduarekin, baina kontuan izan kasu hori ez dagoela bermean jasota.

## **Telefonoko pasahitz/kode/gako batzuk ahaztu ditut**

- Berrezarri fabrikako datuak.
- Hala ere ezin baduzu erabili telefonia, jarri harremanetan konponketa-zentro baimenduarekin, baina kontuan izan kasu hori ez dagoela bermean jasota.

# 15 Zehaztapenak .....

## Prozesadorea:

MT6739

## Plataforma:

Android Go

## Memoria:

8 GB-ko ROM memoria + 1 GB-ko RAM memoria

## Neurriak (luzera x zabalera x lodiera)

137,6 x 65.7 x 9.8 mm

## Pisua:

134 g

## Pantaila:

5,0 hazbeteko ukipen-pantaila FWVGA bereizmenarekin eta 18:9 (480x960) formatu-ratioarekin.

## Red:

GSM: 850/900/1800/1900

UMTS: B1/2/5/8 (2100/1900/850/900)

LTE: 1/3/7/8/20 (2100/1800/2600/900/800)

Maiztasun-banda eta datuen abiadura operadorearen araberakoak dira

## GPS:

GPSa

## Konektagarritasuna:

- BT4.2 bluetootha
- 802.11b/g/n (2,4 GHz) wifia
- 3,5 mm-ko audio-konektorea
- Mikro USBa

## Kamera:

- Atzeko kamera, 8 megapixelekoa (software bidez hobetua)
- Aurreko kamera, 5 megapixelekoa (software bidez hobetua)

## Audio-formatu bateragarriak:

WAV, MP3, AAC, AMR, MIDI, Vorbis, APE, AAC+, FLAC

**Bateria <sup>(1)</sup>:**

Ahalmena: 2000 mAh

**Zabaltzeko arteka:**

microSD™ memoria-txartela

(microSD txartela erabilgarri merkatuaren arabera)

**Funtzionalitate bereziak:**

- GPSa
- G sentsorea

**Oharra:** Zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.

<sup>(1)</sup> Jatorrizko bateriari segurtasun-azterketa zorrotzak egin zaizkio, kalifikazio-estandarrak bete ditzan; jatorrizkoak ez diren bateriak erabiltzea arriskutsua izan daiteke.